

HERNANI / 'Literaturaz gozatzen' tailerra azaroan Udal Liburutegian

HERNANI. DV. Hurrengo hilabeteen abian jarriko da literaturari buruzko tailer bat. Ostiralero, bost astetan zehar, garatuko da tailerra eta interesaturik daudenek, 943 552966 telefonoan edo liburutegi@hernani.net posta elektronikoren bidez, harremanetan jarri behar dute antolatzaileekin. Literaturaz gozatzen: Gertutik eta era atseginez hurbiltzea literaturara, talde giroan, du izena tailerra. Jarduera azaroaren 4an hasiko da, abenduaren 2ra bitarte. Yolanda Arrietak eskainiko du tailerra, arratsaldeko 3:00etatik 7:00etara.

Idazle edo irakurle gisa, kontalari edo entzule moduan, irakasle edo ikasle eran, gertutik eta era atseginez hurbiltzea literaturara, talde giroan, helburua da. Programaren barruan aztertuko dira: Zer bilatzen dugu testu batean?, gaur eguneko zenbait testuren irakurketa kritikoa, nondik hasi?, testu laburrak idazteko jokoak eta jolasak, nola kontatu zerbait, parekoa aspertu gabe?, ozenki irakurtzeko eta kontatzeko proposamenak.

Praktikatik teoriara joango da ekimen honetan eta zenbait jokoren bidez ahozotasuna eta idazketa bultzatuko dira. Gazte literaturako zenbait laginen bidez, azterketa literarioa, dramatizazioa, ahots gorako irakurketa eta idazketa sortzailea landuko dira. Ikastaroa 20 ordukoa izango da.